



EDAFOLOGIA
AUTOEBALUAZIORAKO FROGA (I)
1. eta 2. GAIAK

<i>Esan hurrengo adierazpenak Egia (E) ala Gezurra (G) diren, zure erantzunak arrazoituz.</i>		E	G
1	Ikaztutako materia organikoa, <i>black carbon</i> delakoa, oso erraz degradatzen da.		
2	Lurzoruko mineralek fase solidoaren gehiengoa hartzen dute, %90 eta 99 bitartekoa hain zuzen ere.		
3	Bai horizonte genetikoak bai prozesu edafogenetikoak letra maiuskulaz idazten dira.		
4	Mineralizazioa izeneko prozesuak lurzoruaren materia organikoa mantentzen du.		
5	Lurzoruen eraketaren batez besteko abiadura 1cm·urte ⁻¹ ingurukoa da.		
6	Ur erabilgarria ur higroskopiko eta xurgakorra den ur kapilarraren batura da.		
7	Lurzoruaren gas-faseak atmosferak baino karbono dioxido gutxiago eta oxigeno gehiago du.		
8	Litosekuentzia esaten zaie erliebea aldaketarik gabe konstante mantenduz, beste faktoreen eragina aztertu ahal izateko osatutako segidei.		
9	Hondakin organikoen C/N erlazioa humusaren kalitatea aurreratzeko erabiltzen da.		
10	Itxurazko dentsitatea lurzoruaren partikula solidoen masa eta bolumenaren arteko erlazioa da.		



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

OCW 2015
EDAFOLOGIA

Saez de Camara Oleaga, Estibaliz

Erantzunak

G: 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 10

E: 2 eta 9

